

Tolarearen V. Kapituloa

Gipuzkoako
Sagardo Naturalaren
Kofradia Hernanin
Confrerie de L'cidre
Cofradía de la Sidra



Fotos: José J. Echarri

2000

• • •

H E R N A N I

Aurkezpena

.....

Gure herriko sagardotegiak pilpilean ditugu honezkero, iaz egindako sagar biltze, jotze eta hestutze lanaren ordainean aurtengo sagardoa iritsi da, gure pozarako. Horrekin batera, urtean zehar TOLAREA kofradiak egindako lanari esker, aurten ere V. kapitulua gauzatu eta ospatzeko aukera izango dugu.

Hernaniarrok sagardoarekin daukagun lotura berezia dela jakin behar dugu. Orain dela mende gutxi arte Euskal Herria ia bere osotasunean, Arabako egoaldea eta Nafarroako erribera ezik, sagardogilea zen, hau da, Sagardo Herria zen. Aymeric Picaud frantziarra 1134. urtean Euskal Herritik igaro zenean, Santiago bidean, bertan ez ogi, ez ardo, ezta jakirik ere, euskaldunak sagarra, esnea eta sagardoa besterik ez zutela idatzi zuen. Gure Sagardo Herri honetan ordutik honuntza gauzak asko aldatu dira, honerako eta txarrerako, herri askok sagardo egiteari utzi egin baizioten. Sagardo Herria azkeneko bi mendeetan pixkanaka pixkanaka txikiagotzen joan da eta esaterik bada orain dela 50 bat urte Sagardo Herriko mugak, kale nagusia, Andre kalea eta Hernaniko inguruko dozena erdiko baserrietan kokatzen zirela. Hernani Sagardo Herriko zati txiki bat zelarik, behatz punttaren modura, azkeneko mende honetan bere bihotza bihurtu da.

Luis Mitxelena "Textos Arcaicos Vascos" liburuan dioenez, sagar edo sagarrondo buruzko lehen zitak 1014. urteko apirilaren 17koak dira. Nafarroako gure Errege zena Santxo Handiak Leire monastegiari egindako donazio batean latinetik itzulia, zera dio: "Eman eta eskeintzen dugu Hernaniko lur barrutian, itsas-ertzean, San Sebastian deituriko monastegi bat, bere lur, sagasti, itsas-ontzi..."

Azkeneko urte hauetan, zorionez, Sagardo Herria bere mugak gaintzen ari da, eta



sagardo egiteari utzi zioten herriak ere, sagardogile edo sagardozale bihurtzen ari dira. Hala ere, Hernani, honezkero mila urtetan zehar eten gabe sagastiak izan dituelarik, betirako Sagardo Herriko bihotza bihurtu da, eta hortxe duzue aurtengo bihotz-taupada: Tolarearen V. Kapitulua.

.....

Presentación

.....

Como todos los años por estas fechas, tras recoger la manzana y prensarla, las sidrerías ya han comenzado a recoger el fruto del trabajo realizado: ya ha llegado la nueva sidra. Asimismo, después de un año de trabajo de la Cofradía TOLAREA tendremos la oportunidad de celebrar su V capítulo.

La relación que tenemos los hernaniarras con respecto a la sidra es especial. Hasta hace pocos siglos prácticamente toda Euskal Herria era productor de sidra, es decir, "Sagardo Herria". Había que exceptuar la Rivera de Nafarroa y el sur de Araba. Cuando en el año 1134 el francés Aymeric Picaud cruzó Euskal Herria en su camino a Santiago, relató en sus escritos que los vascos carecían de pan, vino y derivados de carne, sólo producían y consumían leche, manzanas y sidra. En estos dos últimos siglos, "Sagardo Herria", ha ido empujándose poco a poco y se puede incluso decir que hace 50 años sus límites geográficos se localizaban en la calle Mayor, Urumea y media docena de caseríos circundantes a Hernani. De esta forma, el pueblo de Hernani pasó de ser el extremo de un miembro de "Sagardo Herria" a convertirse en su corazón.


Luis Mitxelena dice en su libro "Textos Arcaicos Vascos" que la primera cita sobre la manzana o manzanos data del 17 de Abril de 1014. En esta cita, nuestro Rey Sancho El Grande de Nafarroa hace una donación al monasterio de Leire que dice así: "Damos y ofrecemos en los términos de Hernani a la orilla del mar un Monasterio que se dice de San Sebastián, con las tierras, manzanales, pesqueras marítimas..."

Afortunadamente, en la actualidad "Sagardo Herria" va aumentando su extensión y aquellos pueblos que dejaron de producir sidra, la vuelven a producir o son consumidores. De todas formas, Hernani, que tiene manzanales de forma ininterrumpida desde hace 1.000 años, se ha convertido para siempre en el corazón de "Sagardo Herria", y ahí queda latente el pulso de este año: el Capítulo V de Tolarea.

.....

Egitaraua

-
- 9:15.- Txistulari Banda kalez kale.
 - 10:30.- Kofradia eta gonbidatuei harrera, txalaparta soinuarekin (Biteri Enparantzan).
 - 10:45.- Hamaiketakoa Txantxangorri Elkartean.
 - 12:00.- Kofradien desfilea, Musika Bandaren laguntzarekin.
 - 12:30.- Biteri Kultur Etxearen atarian Ohorezko Aurrekua dantzatuko da, eta Areto nagusian, 5. Kapituloa eta Ohorezko Kofradiakideen tronuratztea ospatuko da.
 - 13:00.- Kantuz Abesbatzan emanaldia Biteri Kultur Etxean.
 - 14:30.- Bazkaria Zelaia Sagarogak.
-




Programa

19-3-2000

V Capítulo


-
- 9:15.- Pasacalles por la banda de txistularis.
 - 10:30.- Recepción de Cofradías e invitados en la Plaza de Viteri al son de la txalaparta.
 - 10:45.- Aperitivo de bienvenida en la Sociedad Txantxangorri.
 - 12:00.- Desfile de los Cofrades de Honor y Cofradías asistentes precedidos por la banda de la Agrupación Musical.
 - 12:30.- En la Casa de Cultura Biteri se bailará el Aurreku de Honor, seguidamente en el Salón de Actos se celebrará el V Capítulo y se procederá a la entronización de los Cofrades de Honor.
 - 13:00.- A la finalización de este acto, actuará el coro Kantuz Abesbatza.
 - 14:30.- Comida en Sidras Zelaia.
-



- 1.- **ALBERRO** _____ Santa Barbara, 61 ----- Tel: 943 55 00 19
- 2.- **ZELAIA** _____ Martindegi, 29 ----- Tel: 943 55 58 51
- 3.- **AKARREGI** _____ Akarregi ----- Tel: 943 55 34 95
- 4.- **RUFINO-ENEA** _____ Akarregi ----- Tel: 943 55 27 39
- 5.- **ITSASBURU** _____ Osinaga ----- Tel: 943 55 68 79
- 6.- **EIZMENDI** _____ Osinaga, 38 ----- Tel: 943 55 64 05
- 7.- **OTSUA-ENEA** _____ Osinaga ----- Tel: 943 55 68 94
- 8.- **ALTZUETA** _____ Osinaga ----- Tel: 943 55 15 02
- 9.- **IPARRAGUIRRE** _____ Osinaga, 10 ----- Tel: 943 55 03 28
- 10.- **ELORRABI** _____ Osinaga ----- Tel: 943 55 03 88
- 11.- **LARREGAIN** _____ Ereñotzu, 56 ----- Tel: 943 55 58 46

Sagardoaren bailaran zaude

Comarca de la Sidra





 **kutxa** *fundazioa*
fundación